

"OLENTZERO" OIARTZUNEN

Andoni LEKUONA

Oiartzuarrok aspalditik ospatu izan dugu "Olentzero-eguna", leku askotan "Gabon-eguna" dena. Gure gazte-denboran, gerra-ondoren, eske eta kanta-eguna izaten zen eta ohiturak markaturik zeuden: goizpartean, mutil kozkor/neska kozkorak ibili ohi ziren eta gazte-jendea ilunabarrean; hortaz gain, beste ohitura jakingarria: gizonezkoak, txiki eta handi, olentzerorekin



Olentzero Oiartzunen 1930 hamarkadan (Rafael Labandibarren bildumakoa)

ibiliko ziren eta, jakina, olentzero-kantak kantatuaz eta tarteka gabon-kantaren bat ere bai; emakumezkoak, berriz, "jaiotzarekin", ("naximentuarekin", gure hizkeran) eta gabon-kantak kantatuaz, baina olentzero-kantarik behin ere ez. Eta edozeinek zuen eskubidea egun horretan kantatuaz eskean ibiltzeko. Gauzak horrela ziren eta beti horrela izan behar zutelara zirudien. Baina ez.

Urte batez, 1950ean izan behar zuen kalkulatu dudanez, behar bada berri txarrak zebiltzalako, gazte-kantarien karguradunek, guardia zibilen koartelera jo zuten baimena eske. Oso haserre jarri zitzairen Mangas sarjentua -hain zuzen Oiartzungo Arditurriko Usouta, gaur diseña dagoen ostatuan, Aranaz-ko "Rubio"

kontrabandistak, bere burua hil aurretik, balaz zauritu zuena. Eta honek baimena ukatu zien. Orduan, antolatzaileek, alkate

izendatu berria zen Garbunoko Manuel Arbelaiz-engana jo zuten eta honek herriko ohituraren defentsa egin zuen sarjentuaren aurrean: beti, errepublika-garaian ere, horrela ezagutu zuela; auzoko herrietan ere, Irunen eta Donostian esate baterako, horrela egiten zela. Mangas-en erabakia: la rondalla sí, pero "sin ese bicho". Berri txarra berehala zabaldu zen herri osoan eta haserre bizia eta nahiko kezka sortu zan. Urte hartan ez zen olentzero talderik eta kantarik izan Oiartzunen eta neskak ere -uste dut- "jaiotzarik" gabe ibili zirala. Ilunabarrean, gazte guztiak -gizonezkoak eta emakumezkoak-, helduak ere bai txikiteoa utzirik, zientu bat per-

tsona plaza nagusiaren erdian korruan bildu "sin ese bicho" eta olentzero-kanta guztiak eta gabon-kanta sail bat kantatu genituen.

Egun hartan konturatu nintzen, eta ez nintzen noski bakarra izango, "ese bicho" zerbait eta norbait zela guretzat, oiartzuarrontzat; hori baino errespetu gehiago merezi zuena eta gure aurrekoengandik jaso genuen ohitura eta ondare bezela gure ondorengoei bere jatortasunean pasatu behar geniena. Gaur ere Olentzero bizi da gure artean baiña Mangas sarjentoaren berririk ez dugu guk. Beharrik ere ez.

Olentzeroren nortasuna

Egia esan, ez dakit zierto "nortasuna" edo "zertasuna" esan behar den. Oiartzunen pertsona baten irudia eta itxura hartzen du. Kantak ere hala dio: "Hemen heldu gerade / berri on batekin / gure enbajadore / olentzerorekin". Eta enbajadore hori muñeko bat, ahal zen bezala, trapuz eta, egindakoa, izango zen haurren kasuan eta olentzeroz jantzitako mutil kozkorren bat askotan helduen kasuan, nahiz eta gero eta

(3. orrialdean jarraitzen du)

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2007ko abenduaren 29an- arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Jean Marc LEMPEGNAT eta Jaqueish ROTH

Biarnoko herri musika

Biarno, Pabe inguruan eratzen den lurralde historikoa da, Euskal Herria, Landak, Aragoi eta Bigorre bizilaguntzat dauzkalarik. Bere herri musikaren oinarriak hauexek dira :

- Biolina, hiru zuloko flauta eta sokazko danborrak osaturiko taldea
- Sauts (jauziak) eta branleak, dantzen erreperorian nagusi
- Herri kantu oso garatua, polifonia herrikoiak barne (gutxi gora behera mila abesti jasota, batzuk XVI. mendekoak)

Jean Marc Lempegnat eta Jaqueish Roth duela 15 urte hasi ziren Biarnoko musikaren berreskuratze lanetan elkarrekin: aintzineko abesti eta soinu-tresnak berreskuratu (Jaqueishek flauta zaharren kopiak ere egin izan ditu), erritmoak, harmonia herrikoiak, bestelako datuen bilketa,... Musika jole bezala bereziki festa tradizionalak maite dituzte: ihauteria, Sanjuanak, Gabonak, herrietako festak,... Bere ikerlanen emaitzak berehalaxe zabaltzeko era ezberdinak erabiltzen dituzte: herri kantak ikasteko asteroko bilerak, grabazioak, internet bidezko hedapena dohainik (www.biarn.org),...

Kontzertu honetan arituko direnak:

Flauta eta ttun ttuna: **Jaqueish Roth**
Biolinak: **Jean Marc Lempegnat**
Cati Rambaud
Pandereta : **Ana Larquier**
Akordeoa: **Miqueu Lahiteta**



Neguko kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN


Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen (Herri Musikaren Txokoaren ondoan) musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izen emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua murrizta baita. Prezioa: 15 euro.

Kontzertu honen laguntzaileak:



LANDA AITA-SEMEAK

Albizturko aho-soinua



Markox Landa Albizturren jaio zen eta oso goiz hasi zitzaion aho-soinuarekiko zaletasuna. Geroago, Aitor

eta Markox bere semeak ere zaletu ziren. Gaur egun, Anoetan finkatutako hirukotea plazaz

plaza dabil soinu-tresna hau jotzen. 1991.an, disko bat grabatu zuten elkarrekin, Markox aitak sorturiko abestiez osatua gehienbat. Diskoa, "Albizturko Aho-soinua" izendatu zuten, aitaren jaioterria aipatuz.

Beraien errepertorioan, trikitixa doinuak dira nagusi: kalejira, trikitixa, porrusalda, fandango, arin-arin...

Ondoko argazkian aita-semeak Aiako San Pedro auzoko plazan ikus ditzakezue, bertan dagoen trikitilarien estatuaren aurrean.

(1. orrialdetik dator)

gehiago hauek ere muñekoa erabili. Irudia era jakinekoa zen: ikazkilea. Kantak garbi adierazten duanez: "Olentzero joan zaigu/mendira lanera! Intentzioarekin / ikatz egitera". Beraz txapela eta bizarra bereak ditu pertsonaia honek.

Dena dela, horixe zen eta hori da Oiartzunen guk ezagutu genuen eta gaur ere ospatzen den Olentzero. Baina ez da hemen bakarrik ospatu izan. Lehen esan dugunez, Irunen, Erreterian eta Donostian ere indar handia zeukan gure gazte-denboran eta gaur ere indartsu jarraitzen du. Badakigu inguru honetatik kanpora ere ospatzen zela baina, Manuel Lekuona osabak dioenez, Bidasoa eta Urumea ibaien artean zuen indarrak handie-na eta osabak bere gaztetako kontuak, XXrren

gizaldiaren hasierakoak, aitatzen dituela kontuan hartu.

Olentzero nolakoa den esan dugu baina gauzarik garrantzitsuena falta zaigu: zer da olentzero edo zer esanahia dakarkigu pertsonaia honek? Manuel Lekuonak ongi markatzen duen bezala, kristaututako, bataiatutako -euskar kultura eskuratzeko eta akulturaketa-asmotan jentilen garaiko festa, eguzkiaren festa dugu Olentzero. Gauza jakina da indo-europarren artean eguzkiak leku bereizi bat zuela, jainko baten lekua zeukala alegia; azken batean, "svastika" indoeuroparra bera ere, gure "lauburua" alegia, seguru aski eguzkiaren irudia da. Eguzkiak, berriz, bere joan-etorrian

gorabeherak izaten ditu, solztizio izenekoak, osabak noizbait eguzkiaren mugak bezala izendatu izan dituanak: goia -egunik luzeena-San Joanetan jotzen du eta behea, -egunik motzena- Olentzerotan. Jentilak, kristautasuna etorri aurretik, bi muga horiek beren modura ospatzen zituzten eta kristauak ere jai horiek ospatzen jarraitu zuten baina kristau-gertakariekin lotuaz: Kristoren jaiotza Olentzerotan eta San Juanen jaiotza ekainean. Eta beti suaren inguruan: sukaldeko enborra olentzerotan leku askotan eta San Juan suak ekainean.

Oharra: artikulu honetako ideia nagusiak, zehaztasun gehiagorekin. 1997ko Oiartzungo urtekarian plazaratu nituen eta interesa duanek, artikulu hori, herriko bibliotekan aurkituko du.

ALBOKARI BURUZKO JARDUNALDI / TOPAKETAK

Helburuak beteta



Andrea Pisu
Oiartzungo Udaletxean

Hernani Musika Eskolako Euskal Herri Soinu-tresnen mintegiarekin batera 2007ko HM Jardunaldiak elkarrekin antolatzea erabaki genuenean horrekin batera edizio honetako gaia Alboka aukeratu genuen gaitzat eta honako helburuak genituen:

Alboka eta albokariak azken urteotan egoera berriei aurre egitea, erreperitorio eta historiaren bilketa eta analisia, eskolatarako eta dibulgaziorako material egokien prestaketa, jendaurreko saio eta "plaza" berri nahiz zaharrak egokitzea, albokari belaunaldi berriak bermatu eta hobetzea eta abar. Gure helburu haiek erabat bete egin direla esan dezakegu. Larunbateko Oiartzungo mintegian Paolo Zeddak albokariarentzat oso baliagarria izan daiteken "Launeddas" soinu-tresna eta bere musikaren aurkezpen oso aberatsa egin zuen. Manu Gojenolak Albokaren historian beste ekarpen berri bat egin zuen eta Juan Mari Beltran lehen nolako Albokari motak izan ziren aipatu ondoren gaurko albokariaren ezaugarriak buruz aritu zen, horren arabera egun nolako albokari eskola mota behar dugun aztertuz. Arratsaldeko mahai inguruan Dani Garciak alboka hitzaren etimologiari buruz aurkeztutako lana eta beste gaien inguruan solasaldi interesgarria izan genuen. Ilunabarrean Oiartzungo Udaletxeko Areto Nagusira inguratu zirenak Launeddas eta albokaren musika entzuteko aukera paregabea izan zuten. Hasieran Bidai bikoteak (Mixel Ducau albokaria) oso proposamen berria egin zuen. Ondoren Sardiniaetik etorritako Andrea Pisuk liluratu gintuen bere musikaren magiarekin eta bukatzeko Juan Mari Beltran albokariaren seikoteak honek albokarako aurretik egindakoa eta musika berriak aurkeztu zituen, tartean zortzidun

osoa ematen duen alboka berriarekin jota berria eskainiz.

Ondoren lagun arteko giro ezin hobean Oiartzungo Girizia Elkartearen afaria egin genuen.

Igande goizean oso txikia suertatu zen Hernani Musika Eskolako entsegu aretoa antolatutako tailerretara inguraturako jende kopuru handiarentzat. Hiru tailer izan ziren: Lehena Alan Griffin albokari eta Otazuko Osses albokagileak elkarrekin aurkeztutako Re maior zortziduna ematen duen alboka. Garbi geratu ziren tresna berri honek musikarako ematen dituen posibilitate berriak. Bigarrena Sardiniako Andrea Pisu eta Paolo Zedda bikotea beren herriko "launeddas" eta "Canto a tenore" polifonieki buruz aritu zen. Bukatzeko Galdakaoko Fede de Dios Alboka irakasleak amaske-ta iraunkorri buruz ikasteko oso ondo funtzionatzen duen bere sistema aurkeztu zuen. Denok dena interes handiz jarraitu genuen. Ondoren Hernaniko zentro aldetik albokariaren kale buelta "aparta" egin genuen Santa Barbara elkartearen bazkaltzera sartu aurretik. Bazkal ondoan mahai inguruan alboka eta kantua nagusitu ziren.

Arratsaldeko 5:30etarako Ezkiaga pasealekuan Usurbilgo Alboka Eskolako taldeak hasiera eman zion Erromeriari. Hauek albokaz gain beste soinu-tresnak ere erabili zituzten bai eta bertsolariaren laguntza ere. Ondoren Oiartzunen bezperan gertatu zen bezala Andrea Pissuk launeddas jotzen duen trebeziak guztion atenzioa lortu zuen. Segidan dantzarako saioak iritsi ziren: Hernani Eskolako taldea eta Bizkaiko Albokale taldeen saioekin lortutako musika eta dantzaz osatutako giro paregabea bukaera eman genion aurten batera ospatu ditugun **H. M. 6. Jardunaldiak** eta **Albokariaren Hernaniko 14. Topaketa** bi ekitaldi hauei.



Bizkaiko Albokale taldea Hernanin

BISITARI KOPURUA

Iraila: bisitari kopurua: 120

Antolatutako taldeak: 10

Urtia: bisitari kopurua: 418

Antolatutako taldeak: 20

Azaroa: bisitari kopurua: 214

Antolatutako taldeak: 13

Bisitari kopurua abendura arte: **16.607**

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

